

LAZKAO TXIKIREN IRUDIA HITZETAN

Txikian handia. Gorputzez xume, izpirituz erraldoi. Gizatasun eta barne aberatsekoa genuen. Sentibera eta era berean umorez betea. Bere-berea zuen liriko-komiko nahasketa bitxi eta sorginaz ingurua gozatzeko, alaitzen zekiena. Bertsoz nahiz kontaketa zirrituz, zebilen lekuan zebilela, bere arrasto aparta uzteko gai zena.

Horrela, bizpahiru esalditan, haren irudia taiutu nahi nuen, hitzezko zirrimarra xumeetan bada ere. Horrela edo antzera ikusten dut Lazkao Txiki, Goierriko bertsolari maitagarria.

Gure gizarte hutsal, artifizial eta harroputz honen baitan jatortasuna, Euskal Herri euskaldunaren emaririk finena zerion. Bertsolaritzaren ingurumarira ahalik eta gehien hurbiltzeak benetan merezi du Lazkao Txiki eta haren antzekoak ezagutzeko besterik ez bada ere. Eta ez da bakarra. Bertsolarien inguruminguru dabilenak badaki noizbehinka bederen sortzen direla, euskal kulturaren zuzpergarri eta gizartearen pozgarri, horrelako pertsonak.

Haren irudia gogoramenean zirika dabilkit, batean bertsokide duen gizon puska handiak aurrez erabilitako mikrofonoa bere altuerara egokitzen, bestean lagunari zeharka eta behetik gora



egiten dion begirada maltzurrez publikoa bereganatzen... Bertso-tan hasi orduko ere bazekien hark gero zetorrenerako entzulegoa erne jartzen. Hitzez adieraztea ez da erraz, baina oraíndik entzuten dihardudala dirudi barnean grabaturik dudán haren kantareren soínua. Sehaska-kantetan bezala, halako ahaire eta kadentzia tristeak maite zituen.

Entzuleen zerbitzari leial izan genuen. Haiei poz emateko ahaleginetan, bere barneko altxor aberatsa hustuko zuen jaialdi bakoitzean. Zenbait unetan, barruak eskatzen ez ziona ere, entzulegoak eskatuz gero, eman egiten zuen, oparo eman ere, bertsozaleei ezer ukatzen ez baitzekien. Hara, orain dela hamazazpi bat urte, 1976. urtean hain zuzen, plazarik plaza kantari ibiltzeaz nekatu antzean zegoela agertzen zion *Zeruko Argia*-ko kazetariari: «Orain plazatik plazara ibiltzeaz nekatuta nago; urte asko da hortan ari naizela eta beti asmatzen ihardute hori zaila da». Elkarrizketaren harian, kazetariak «baina etsiko ahal zenuke bertsorik egin gabe?» ihardetsi zionean, bertsolariak honako hau erantzun zion: «Ez dakit... Lehen nuen kantatzeko gogo hura asko gutxitu zait».

Urteak eta urteak igaro dira harrezkero, eta ospitalean koman eta kordegabe gelditu arte ez du etsi. Lazkaomendiko bertsolari gozoaren iturria eman eta eman aritu da bertsozaleen gozameneko eta euskal kulturaren onerako. Azken-azkenera arte

iraun zuen bertsolaritzari eta entzulegoari leial. Jendaurreko azken bertsoa bertsolari egunean, Santi Onaindia eta Alfonso Irigoienek omenaldian kantatu zuen:

Bi gizon haundin ohoretan
 hastera goaz kantari,
 lehendabiziko besarkada bat
 eta egunon zueri.
 Hoek ginduzen gerra ondoan
 bertsolarien gidari,
 garai hartako esker ordainez
 mila zorion bieri.

Zaila zela beti asmatzen aritu behar hori adierazten zion *Zeruko Argia*-ko kazetariari. Izan ere, horixe zen Lazkao Txikiren joera: irudimenaren indarrez bere barru aberatsa arakatzea, entzuleari eskaintzeko beti berri gertatuko zen zerbaiten bila: ateraldiren bat, umorezko zirikadaren bat, ustekabekoren bat... Jose Lizasok alde horixe azpimarratzen digu hartaz iritzia ematean. Hona hitzez hitz: «beste inori entzuten ez dizkiozun



bertso klaseak entzungo zenizkion hari, apartekoak, esanahi handikoak edo arnasa handikoak. Jakina, beti haien bila aritzen zen [...].

Aurreraxeago, bere oroitzapenen harian, honela dio Jose Lizasok: «Oso ateraldi bereziak zituen, denok ezustean harrapatzen gintuztenak».

Xabier Amurizak eta Jon Sarasuak, beste ezer baino gehiago jenio bat izan dela aitortuko digute. Entzun diezaioگون Xabierri: «Nik esango nuke handia baino zerbait gehiago izan dela. Handia edo txikia, jeinu bat izan da behintzat». Eta aurrerago, Lazkao Txiki eskola zaharrekoa izan ote den galdetzean, bete-betean ukatzen du: «Irudimena ez da sekula zaharra. Egitura zaharrekoak izango ziren bere bertsoak, baina Lazkao Txiki originala zen, eta hori ez da zaharra izatea».

Jon Sarasuak ere antzeko iritziak agertzen ditu: «Lazkao Txikirekin egun oso bat pasatuta, konturatzen zinen egunean zehar gertatzen zitzaizkion gauza txikien aurrean, sekulako irteera antologikoak zituela. Eguna pasa eta gero, lau edo bost anekdota zenituen, kontatzeko modukoak, berriak eta freskoak, ez txiste ikasi eta errepikatuak. Txunditu egiten ninduen bere genialtasun horrek».

Hartaz mintzatu diren ia guztiek gogoratu dutena hauxe da: haren alderik garrantzitsuena, sakonena, finena bigarren mailan edo erdi ezkutuan gelditu dela, hots, Lazkao Txiki lirikoa, sentibera, gozoa. Eta bertsolari umoretsuaren irudia, barre eragiten zuena, txisteak eta pasadizu politikak kontatzen zekiena gelditu dela jendearen baitan itsatsirik... Hori horrelaxe da, eta arestian aipatu dugun publikoaganako leialtasunagatik onartu du bertsozaleak eta herriak ezarritako papera zintzoki betetzea, barruak besterik eskatu arren. *Zeruko Argia*-ko elkarrizketa hartan, bertsotarako zer gai maite duen galdetzean, honela erantzun zuen: «Ez nizuke gai berezirik esango; baina hori bai, nere barruak beti sentimenduzkoetara jotzen du».



Iñaki Muruak *Bertsolari* aldizkariaren orrialdeetan hartaz dioena adierazgarria da:

«Baina farreari bizia emateaz gain, goxotasuna eta maitasun izugarria ematen duzun pertsona zara. Neuk ikusi gabe ez nuen sinetsiko ama baten besoetatik haur bat zeuretaratu eta hainbat ipuin, inintzio, soinu, dantza... egin ondoren, berriro amari itzultzerakoan haurra negarrez hasi zenekoa. Zeuri ere ez zitzaizun asko falta beren bide beretik hasteko, baina bertso-

tarako deia zetorren bozgorailutik».

Umorezko alde horretatik gehiegi edo gogoz kontra erabilia izatearen kexua ere noizbait agertu izan zuen: «Norberak eramaten dizkik horiek barruan». Eta beste atal batean honela: «Adin honetan banebilek ba ni txorakeria hauek esaten!».

Baliteke garai honetan euskal gizarteak umorea gehiago behar izatea eta bertsolaritzaren tradizioaz edo eta hartaz dugun irudiaz alde hori bestea baino egokiago etortzea. Izan ere, ez dira gozo-gozoak gure egunak. Irri eragiten jakitea, eguneroko bizimodu latz honen tarteetan umore-tantatxoa ezartzea asko eskertzen da. Eta Lazkaomendiko bertsolariak ongi zekien hori betetzen, bere beste alde, aberatsagoa, finagoa, sentimenduzkoa barnean gorderik ere... Bertsotan aritzen zenean, alboko

bertsolariek bazekiten nondik zirikatu: haren gorputz txikia eta mutl Zahar izatea hizpide aproposak izan ohi ziren, garrantzi handiagoko zeresanik ez zenean... Baina Lazkao Txikik berak zekien ondoen akats ziruditen horiek bere arma bihurtzen. Epelak entzun behar izaten zituzten batzuek haren ahotik.

Umorea eta jendeari barre eragiteko gaitasun hori dela eta, baditu ia Euskal Herri osoan zabaldu diren irteera xeble batzuk. Nork ez du gogoan, adibidez, autoz zihola txapelokerrak alto egin ziotenekoa:

- ¿Acaso no ha visto Vd. el STOP?

-¿El STOP sí, pero a ustedes no...

Non jaio zen galdetu zion bati, «jaio Lazkaon eta hazi inon ere ez» erantzun zion.

Orain dela gutxi jaso ditut haren pasadizu polit hauek ere:

Behin medikuaren kontsultara joan omen zen eta jende ugari zen itxaroten; gehienak adinekoak, andre zahartxoak eta. Aldizkarien orrialdeak pasatuz, serio samar jendea, barre egitekoa ez baita gaiso egotea... Lazkao Txiki hasi omen zen kontu kontari eta txiste kontari eta guztiak barrearen barrez lehertu beharrean, algaraka. Halako batean medikua agertu omen zen formalago egon zitezen kargu hartzera.

Beste hau ere antzekoa da: klinikaren batera joan zen senitartekoren bat edo bisitatzera. Baina senitartekoa ezezik,



gelarik gela igaro zen hango gaisoak ikustera. Han arduradun ziren erlijiosa eta erizainek esan omen zuten gero hark sortu zuen giro alai, hark gaisoak poztuz, haiengan itxaropena piztuz egin zuena benetan eskertzekoa zela.

Lazkao Txiki joan zaigu, bertso-munduan eta herri-kulturaren ingurunean ikaragarriko hutsunea utziz. Hemen ere, hasierako harira itzuliz, txikian handia zela esan behar dugu; horregatik utzi digu halako hutsunea. Berak ere, lehenago esan dugunez, bazekien txiki izate hori bertsoz erasotzeko erabiltzen. Imanol Lazkanori, esaterako, honela bota zion: «Lazkao Txiki fina dalako / Lazkanok hartzen du pena, / frasko txikitan gorde ohi ditek / koloniarik onena».

Esanak esan eta zapore gozoa uztearren, lau bertso ezarriko ditut hemen: hiru berarenak eta laugarrena Jon Lopategik haren hileta-elizkizunean kantatua:

Egunsentiari

Goizean goiztar jaikitzen banaiz,
kanporatutzen naiz beti,
ta ikusten zaitut zerura goruntz
eguzkiaren aldetik.
Eguzkiaren argitasuna
hortxe dator sortaldetik,
egunan haurtzaro besterik ez zera
bihotzeko egunsenti.
Urre antzeko argitasunez
jantzi da zeru urdina,
gure Jainkoak mirari antzo
zeru goitikan egina.
Behar genduke sendotasuna
eta sinistapen fina,
zer miraria egunsentiaz
konturatuko bagina.

Txorien kantuz

Birigarroa zuhaitzean ta
xoxoa sasi onduan
gaur goizean-e hor ari ziren
ahaleginean kantuan
kukua berriz zuhaitzik zuhaitz
kuku hemen ta kuku han
kalendario gabe badaki
noiz etorri ta noiz juan.

Jon Lopategik

Lurra lurrari ordaindu eta
zeure espirituz aidean,
hegazka zoaz izarrik izar
erromes jaingo bidean,
zure sarrera bertso-afari
batez ospatu nahiean
zeure zain dagoz zeruetako
bertsozaleen mahaiean.

Luis Baraizarra Txertudi